

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2024ko URRIAREN 25ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2024ko urriaren 25ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Vicente Garcia Momblona
Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Maria Isabel Vaquero Montero.


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2024ko irailaren 27an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 27 de septiembre de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. 2024/2025 ikasturtean, Larraulen, Euskal Dantza ikastaroaren zerbitzua emateko kontratuaren esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios para impartir un curso de Euskal Dantza en Larraul durante el curso escolar 2024/2025.**
- 5. 2024/2025 ikasturtean, Larraulen, Esku pilota ikastaroaren zerbitzua emateko esleipena, hala bada./ Adjudicación del contrato de servicios para impartir un curso de Esku pilota en Larraul durante el curso escolar 2024/2025.**
- 6. 2024-2025 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada/ Aprobación, si procede, de las bases de la subvención para la realización de cursos de euskera a la población de Larraul para el curso 2024-2025.**
- 7. Larraulgo irisgarritasun unibertsaleko plan integrala idazteko lanen esleipena/Adjudicación de los trabajos de redacción del Plan integral de accesibilidad universal de Larraul.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2024 urteari dagokion ekarpena onartu eta burutzea/ Aprobación y realización de la aportación correspondiente al 2024 a Tolosako Hiltegi Mankomunatuari.
9. Oriako Txirrindulari eskolak eginiko diru-laguntza eskaeraren onespena/Aprobación de la ayuda económica solicitada por Oriako Txirrindulari eskola.
10. Beste batzuk/Otros.
11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2024 urteko irailaren 27an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 48/2024tik 48/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SETALDE	486,93
ANABI	261,80
KIMURI	1.295,32
KIMURI	1.295,32
KIMURI	757,90
KIMURI	757,90
NODE KULTUR ELKARTEA	1.210,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	993,32
GRENKE	214,17
EKILUZ	47,30
EKILUZ	22,20
EKILUZ	155,95
EKILUZ	209,99
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	306,01



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IPARFIBRA	263,41
MAITE ARANA	43,37
LARRAULGO HERRI OSTATUA	197,25
TELEFONICA	83,49
TELEFONICA	10,41
SECURITAS DIRECT	54,39
SECURITAS DIRECT	55,04
BERRI LANTEGIA	24,60
MAQUELSA	19,77
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.578,11
OSCAR GALINDO	133,10
GIPUZKOAKO URAK	4.281,70
GIPUZKOAKO URAK	7.723,79
ZU ETA BIOK	1.537,67
ZU ETA BIOK	563,81
SETALDE	486,93
KIROLZER	49,10
GUREAK MARKETING	1,26
TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA	110,11
EBA ERKIZIA	627,93
IZFE	1.928,62
IZFE	38,66

Udalbatza honek, **ahoz bidez** hurrengoak,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **27.826,63** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


LAUGARREN PUNTUA

2024/2025 IKASTURTEAN, LARRAULEN, EUSKAL DANTZA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Oinkari dantza taldeari esleitzea, Larraulgo herrian 2024/2025 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan. Guztira, **2.160,00€ (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.

2024ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Oinkari dantza taldearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2024-2025 ikasturtean zehar, 2024ko urriaren 2tik 2025eko ekainak 18arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 40,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2024-2025 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira. Hori guztira, 2.160,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.


SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

BOSTGARRENGO PUNTUA

2024/2025 IKASTURTEAN, LARRAULEN, ESKU PILOTA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Kontuan hartuta Larraulgo udalerrian 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunari esleitzea, Larraulgo herrian 2024/2025 ikasturterako Esku pilota klaseak eman ditzan. Guztira, 1.125,00€ (BEZa salbuetsita) kopuruko gastua izanik.

2024ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Iñaki Esnal Aizpurua jaunarekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2023-2024 ikasturtean zehar, 2024ko urriaren 14tik 2025eko ekainaren 16arte, horretarako egokitutako udal frontoian esku pilota eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2024-2025 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 45 izango dira. Hori guztira, 1.125,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

SEIGARREN PUNTUA

2024-2025 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2024-2025 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2024-2025 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, 2024ko urriaren 1etik 2025ko uztailaren 30arte zabalduko da.

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA


Larraulgo Udalak, beharrezkoa du, "Irisgarritasun Unibertsaleko Plan integrala" egitea, horretarako "Eba Erkizia Brion", "Juan Antonio Herrarte" eta "bluestudio (Zimmerlan Ingenieria y Arquitectura, S.L.)" enpresei aurrekontuak eskatu zaizkie.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, udalbatzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ goitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: bluestudio (Zimmerlan Ingenieria y Arquitectura, S.L.) enpresari, Larraulgo Irisgarritasun unibertsaleko plan integrala dokumentuko lanak egiteko kontratua esleitzea, 10.100,00 euro (BEZ kanpo), 1.0000.629.134.00.01 “Irisgarritasun unibertsaleko plan integrala” kontu sailaren kontura.

BIGARRENA: : Erabaki honen berri Eba Erkizia Brion”, “Juan Antonio Herrarte” eta “bluestudio (Zimmerlan Ingenieria y Arquitectura, S.L.)” enpresei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2024 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONARTU ETA BURUTZEA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2023ko abenduaren 11an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpena,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ondorioz, Larraulgo Udalari 186,00 euroko ekarpena egitea suposatzen dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2024 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 186,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2024ko Udal aurrekontuetako 422.431.40.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 186,00 euroko gastua onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

**ORIAKO TXIRRINDULARI ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERAREN ONESPENA**

Ikusirik Oriako Txirrindularitza Elkarteak eginiko eskaera, non dioen, eskualde mailan nesken txirrindularitza jarduera aurrera eramaten dutela, baina jarduera hau aurrera eramateko finantzazioa behar dutela. Horregatik eskualdeko udaletxeei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Oriako Txirrindularitza Elkarteari 250,00 eurotako ekarpena burutzea 2024ko Udal aurrekontuetako 422.341.00.01 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 250,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Oriako Txirrindularitza Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memoria bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 12:20 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.